

# 2022ko martxoaren 28ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Sabine Etcheverry, Anne Marie Darguy, Virginie Sabaloue, Maïte Oxarango, Chantal Echevertz, Fred Hernandez, Samuel Biscay, Koxe Barbier, Philippe Mongabure, Hervé Parachou, Patrick Barneche, Arño Gastambide

Bilkurara ezin etorria jakinarazi zutenak: Kattalin Duhalde, Ramuntxo Oteiza, Carine Perez

## 1. 2021eko ESPLOTAZIO-EMAITZAREN ESLEITZEA

2021eko kontu administratiboak erakutsi du:

### Herriko Etxearen konturako:

- 324 905,67 €-ko funtzionamendu-soberakina
- 270 689,61 €-ko inbestimendu-finantzaketa beharra (inbestimendu-defizita + betetzekoak diren gaineratikoak)
- Beraz, funtzionamendu-emaitza 54 216,06 €-koa da, eta 2022ko aurrekontura erakarri behar da.

### Hilerrietarako:

- 4 533,47 €-ko funtzionamendu-soberakina, 2022ko aurrekontura erakartzekoa.

### Harrietakoborda eta Landaluxia lotizamenduetarako:

- 10 000 €-ko inbestimendu soberakina aurrekontu bakoitzean

Aurrekontu guzien esplotazio emaitzaren erabilerak aho batez ontza eman ditu Herriko Kontseiluak

## 2. 2022ko TASEN BOZKATZEA

2021ean bozkatu tasa berak bozkatzeko proposamena egin da:

Tasak	2021eko tasak	2022an bozkatu tasak	Oinarriak	Produktuak
			2022	2022
F.B	23	23	854 000	196 420
F.N.B	29	29	68 500	19 865
<b>Orotara</b>				216 285

Ez da iazko emaitza bera, baina auzapezak berriz erran du herriak ez duela gehiago behar den palankarik aurrekontuaren orekatzeko bizitegi zerga galdu ondoan, eta gainera, 2015az geroztik, Estatuaren emaitzak erregulari apaltzen ari direla (2016ko eta 2022ko aurrekontuen artean gertatu galtzea estimatzeko ikerketa bat eginen da).

Nôtre legea eta frantses gobernamentuaren erabakiak aplikatuz geroztik, tokiko zerga sistema azpiz gora ezarri da, eta zail gertatzen da dirua sarraraztea. Hala eta guziz ere, eta 2021eko gure engaiamenduaren arabera, 2022ko tasak lur zergei bakarrik doazkie, eta ez dira aldatuko.

### 3. AURREKONTUEN BOZKATZEA

#### AURREKONTU NAGUSIA

- Funtzionamendua: 768 921 €

#### *Funtzionamenduaren ikuspegi orokorra*

Kargu nagusiak	145 400,00 €	2021eko soberakina, erakarria	54 216,05 €
Langile karguak	154 400,00 €	Zerbitzuen produktuak	62 100,00 €
Usaiaz kanpoko karguak	700,00 €	Karguen arintzea	2 000,00 €
Finantza-karguak	6 500,00 €	Orotariko zergak	409 255,00 €
Beste kudeaketa karguak	158 700,00 €	Beste kudeaketa produktuak	41 000,00 €
Ordena operazioak	7 989,00 €	Emaitzak, dirulaguntzak	196 150,00 €
Transferentzia inbertsio sailera	295 232,05 €	Idazketa ordenak	4 200,00 €
<b>Orotara</b>	<b>768.921,05 €</b>	<b>Orotara</b>	<b>768.921,05 €</b>

- Inbestimendu aurrekontua: 349 500 € betetzekoak diren gaineratikoak gabe (692 380 € orotara)

Ekipamendu operazioak	RAR 2021	2022ko inbestimenduak:
Ahalmen urrikoen helgarritasuna – Herriko Etxea	296 580,00	205 000,00
Bideak/Sareak	17 880,00	90 000,00
Suteen kontrako zaintza		8 000,00
Orotariko obrak		17 000,00
Beltzagitearen zaharberritzea - Ikerketak	20 000,00	12 000,00
Altzarien erostea	8 420,00	17 500,00
<b>INBESTIMENDUAK OROTARA</b>	<b>342 880,00</b>	<b>349 500,00</b>

#### HILERRIAK

11 Kargu orokorrak	0,00 €	002 Funtzionamendu emaitza erakarria	<b>4 533,47 €</b>
<b>OROTARA</b>			<b>4 533,47 €</b>

Aurrekontu gehigarri hori ezeztatuko da ekainean eta funtzionamendu emaitza aurrekontu orokorrerako erabiliko da.

#### LOTIZAMENDUEN AURREKONTU GEHIGARRIA

2022 Harrietakoborda			
Funtzionamendua			
GASTUAK		IRABAZIAK	
Lursailak eraikuntzarako egokitzea	110 000,00	Transferentzia aurrekontu nagusitik	60 000,00
Ordainsariak	10 005,00	Lursailen salmenta	60 000,00
Gastuak orotara	120 005,00	Beste	5,00
		Irabaziak orotara	120 005,00
<b>Inbestimenduak</b>		<b>2021eko emaitzak</b>	<b>10 000,00</b>

<b>2022 Landaluxia</b>			
<b>Funtzionamendua</b>			
<b>GASTUAK</b>		<b>IRABAZIAK</b>	
Lursailak eraikuntzarako egokitzea	110 000,00	2/3 urterako maileguak	125 000,00
Ordainsariak	15 005,00	Beste	5,00
Orotara	125 005,00		125 005,00
<b>Inbestimenduak</b>		<b>2021eko emaitzak</b>	<b>10 000,00</b>

Aurrekontu guztiak aho batez ontzat eman ditu Herriko Kontseiluak.

#### **Amortizazio iraupenak**

Behar dugu erabaki bat hartu erosi ontasunen amortizazio iraupenei buruz: alabaina, operazio zenbait agertzen dira amortizazioa nahitaezkoa den kontuetan (202, 204 eta 21531 kontua).

Proposatu da amortizazioa 5 urtez egitea 204 kontuan (Eraikinak eta muntadurak) eta 2 000 € petik diren zenbatekoei dagokienez, proposatu da amortizazioa kolpe bakar batez egitea.

Herriko Kontseiluak onartu du.

#### **4. Denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu ez iraunkor baten sortzea**

Langile batek erretreta mailakatua galdatu baitu, behar dugu denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu bat sortu (6.5 oren astean), lana aldi bateko emendatu baita (2 hilabeteko epea errespetatu behar da lanpostu iraunkorra sortzeko).

#### **5. Denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea**

Testuinguru berean, teknika laguntzaile lanpostu bat sortu behar dugu (herriko gelen mantentzeko langilea) 6.5 orenez astean.

Lanpostu hori bi urratsetan sortuko da, eta Herriko Kontseiluak onartu du.

#### **6. 2022ko bide obren finantzaketa planaren onartzea eta departamenduari dirulaguntza galdatzeko baimenaren ematea**

Ikus behereko aurrekontua:

<b>Bideen izena</b>	<b>Zer obra mota</b>	<b>Zenbatekoa (BEZa gabe)</b>
Extekateko bideko patarra	Hodiak ezartzea + estaldura	13 030,50
Larreburoko bideko patarra	Hodiak ezartzea + estaldura	17 107,50
Arduarreko bidea	Arduarrera buruzko malda/ur hodiak/harriztatzea	4 775,50
Zabaltzako bidea	Gutienez hodian hustea edo zatika	6 090,00
Fermineniako bidea	Hodien garbitzea	6 151,50
<i>Etxexuriko bidearen zabaltzea</i>	<i>B0085 lursailaren inguruan</i>	10 097,50
Etxebarneko bidean uraren desbideratzea		4 742,00

Londaitzeko bidea	Zabaltzea	3 330,00
Leixorreneko bidea	Patarrean hiru geruzako estaldura egingen da	9 655,00
		74 979,50

### Gainerako gaiak:

Herriko lurrei buruzko galdeak: gai horri buruz egin zen bilkuraren laburpena eta herriko kontseiluaren jarrera

- A1126 lursaila Arotcarena andereak salmentatik kendu ondotik. Etabaidatu ondoan, batzordea ados agertu da negoziaketak segitzeko saltzailearekin. Jaun auzapezak LTEPri mandatua eman dio prozedura horretarako, lehen desmartzaren segidan.

- A 1418 lursaila: Malégarie anderearekin egon gara: aipatu diogu salmenta prezioak piztu asaldura hor ziren hautetsien baitan; prezioa apalduko duela hitzeman du. Segitu beharko den afera. Andere horrek ez luke gehiago bere etxea hor eraikitzekoa; aski kario erosi duen lurra berriz saldu nahi du dirurik galdu gabe.

- A1417 lursaila. Aroztegui anderea; Besterentzeko Asmoaren Deklarazioa Herriko Etxera heldu ondoan, batzordea alde agertu da Euskal Elkargoak bere lehentasunez erosteko eskubidea erabil dezan. Euskal Elkargoko Etchegaray jaunaren jakinarazpena larunbatean heldu zen Herriko Etxera. Euskal Elkargoak bere lehentasunez erosteko eskubidea LTEPri uzten diola zioen, Herriko Etxearen izenean, honek erreserbak egin ditzan gerorako. Bi lursailak eraikuntzarako egokituko dira heldu den larrazkenean eta horrek lekua "libratuko" du bai finantza mailan bai printzipioz. Bi lursailak orotara 4 200 m<sup>2</sup> zabal dira (Malegarie eta Aroztegui), eta inportantea iduritu zaigu lehen salmentatik beretik gure interesa erakustea. Azken lursailari doakionez, notarioarekin, saltzailearekin eta eroslearekin harremanetan jarri gara gure proiektuaren berri emateko. Euskal Elkargoaren jakinarazpen bera errezibitu dute, protagonistekin bildu gara, azalpenak eman dizkiegu.

Darqy jaunaren galdea, B0881 lursaila: Darqy jaun-andereek nahi lukete lursail ttipi bat eskuratu, beren lurraren paraleloan, lehen bidexka zena, baina ez dena gehiago hala.



Herriko Kontseiluak salmenta onartu du, prozedura sinplifikatua da sailkapen administratiboaren arabera: salmenta zuzena inkesta publikorik gabe, TKAPk eman iritziaren arabera.

### Mirailen ezartzea:


Arauaren orotarazteko: Hiri barnean bide-mirailak baimenduak dira behin-behineko konponbide gisa, baldin eta antolamendu edo tresna batek errepideetako ikuspen eskasa ezin badu konpondu. Haatik, hiriguneetatik kanpo, mirail baten ezartzea hertsiki debekatua da.

Erregulariki galdatzen digute mirailen pausatzea, bereziki Aiherra eta Izturitze arteko errepidean. Ezin ditugu denak kontentatu, eta iritzi teknikoa behar genuke mirailen instalazioa optimizatzeko eta segurtatzeko, beraz, parte hartze bat galdatuko dugu.

### Errepide arazoa, Duhagon eihera

Jabea den Coulomb jaunaren gutuna, traktoreen pasaiari buruz, Herriko Etxeak zerbait egin dezan galdeginez.

Kasu horretan indarrean den erabiltze eskubidearen arabera, Herriko Kontseiluak gomendatzen du traktoreek pasatzen segi dezaten eta bi auzoei galdegin die borondate onekoak izatea.



Korrika: hitzordua apirilaren 9an, Hazparneko Urkoi auzoaldean, 13:00etan. Aiherrako Herriko Etxeak eta elkarte guziek kilometro berean parte hartuko dute.

Apirilaren 10eko bozak: bozka bulegoa 8:00etatik 19:00etara irekia izanen da, denen etxeko gela ttipian, eta Izpindar elkartearen ere han izanen da bere lanaren aurkezteko, edo kanpoan edo gela handian.

Bilkura 22:08an bururatu da

Arño Gastambide, auzapeza